

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## %62 arte igo dira hezkuntza publikoaren aurrematrikulazio eskaerak

*Egindako eskaeren %98 egindako lehenengo aukeran sartuko da. A eredia 1,5 puntu igo da eta zonalde ez euskaldunean bi ikastexe gehiago izango dira D ereduan*

Asteartea, 2018.eko otsailak 13

Maria Solana Hezkuntza kontseilariak, Roberto Pérez, Hezkuntza zuzendari orokorrarekin batera, 3 urteko ikasleek 2018-2019 ikasturterako egindako aurrematrikulazioan bildutako datuak eman ditu ezagutzera. 5.886 eskaera jaso dira, iaz baino gutxieago 6.100 izan baitziren orduan. 3 urtekoen aurrematrikulazioaren %62k aukeratu du hezkuntza publikoa. Lehendabiziko aukera moduan zehaztuta zeuden ikastetxeek martxoaren 5era bitartean izango dituzte argitaratuta behin behineko zerrendak; eskaera orrian osasun txartelaren zenbakia zehaztu zutenek, bide telematikoa erabili ahal izango dute kontsulta egiteko. Berdinketa kasuetan libre dauden plazak banatzeko gaur Hezkuntza departamentuan izandako zozketaren emaitza ere kontsultatu ahal izango da.

Hezkuntza departamentuak gaur eman ditu ezagutzera 2018-2019 ikasturterako izandako aurrematrikulazio datuak: guztira 5.886 eskari. Zifra 2015ean izandako 5.991 jaiotzekin dago lotuta; hala ere, harrezkero izan diren biztanlego mugimenduekin batera aztertu beharko da. Hezkuntza kontseilariak adierazi du, zenbaki orokorra jaitsi bada ere, Nafarroako gurasoen gehiengoak sare publikoaren alde egindako hautua nabarmendu du. 3 urtekoen aurrematrikulazioaren %62k publikoaren alde egin du eta % 38k itunpekoa aukeratu duen; hortaz, aurreko ikasturteko datuekin alderatuz 1,3 puntuko jaitiera izan du itunpeko sareak. "Publikoan izandako eskari-igoera gainera, eredu guztietan gertatu da: 1,5 puntu A ereduan; 1,3 atzerriko hizkuntza ikasteko programak dituzten A/G



Quiero para mi hijo una escuela cercana e integrada en el entorno. por eso irá a la Pública.

MULTILINGÜE  
 Bilingüe Castellano, Inglés, Euzkera

AVANZADO  
 Niveles pedagógicos enfocados al mundo real

MÁS RECURSOS  
 Recursos tecnológicos, materiales y humanos

Elige la Pública, la de todos y todas  
 CAMPAÑA DE PREMATRICULACIÓN 2018/19. DEL 1 AL 7 DE FEBRERO

2012  
 Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua  
 Gobierno de Navarra Departamento de Educación

Eskola publikoaren alde egindako kanpainaren irudietako bat.

ereduetan; 0,5 puntu programarik gabeko A/G ereduan eta 0,2 D ereduan”, nabarmendu du kontseilariak.

Solanak azladu duenez, “%98 hautatutako lehenengo aukeran sartuko da. 69 eskaera bakarrik geratu dira lehen aukeratik kanpo”. Urtarrilaren 10eko 2/2017 ebazpenak jasotako aldaketei dagokionez, Roberto Perez Hezkuntza Zuzendari Orokorrak gaur 13:00etan Hezkuntza departamentuan egindako zozketan izandako emaitza aipatu du: González Hita abizenetik aurrera emango dira plazak, baremazioan berdinketan izan diren eta plazak baino eskari gehiago izan diren kasuetan. Gainera, “aurrematrikulazioaldiaren ondotik berdinketa kasuan libre dauden plazak banatzeko zozketa egin behar izan duten ikastetxeen kopuruak ez du aldaketa nabarmenik izan, hortaz ez du aparteko zailtasunik eragin. 10 ikastetxek behar izan dute zozketa egitea”, azaldu du Perezek.

Eremu ez euskalduneko D ereduko eskaintzari dagokionez, hizkuntz aniztasuna bultzatzea helburu duen akordio programatikoari jarraituz, eta euskararen hezkuntza zabaltzeko bidean, eremu ez euskalduneko D eredia eskaintzen duten ikastetxeei gehituko zaizkie datorren ikasturtean Barasoaineko Martin Azpilikueta eta Peraltako Juan Bautista Irurzun ikastetxeak.